

Osasun-agintariek gomendaturiko neurri orokorrak

Mantendu segurtasun-distantzia.
Esku-higiene etengabea. Jarraitu Osakidetzaren gomendioak. Eskuak sarri garbitu ur eta xaboiarekin (edo gomendaturiko soluzioarekin) birusarekiko kontaktua edo transmisioa saihesteko, eta beti eztl egin ondoren.
Ez eraman eskuak aurpegira (ahora, sudurrera, begietara). Keinu mimetikoak dira, batzuetan patogenoen sarbide izan daitezkeenak.
Eztul egitean, ez erabili eskuak, ukondoko hutsartea baizik, edo erabili eta botatzeko zapi bat, armasketa-jariakinak biltzeko.
Erabili eta botatzeko zapiak erabili eta berehala bota horretarako prestatutako ontzira.

Hartu beharreko neurriak, sintomak antzemanez gero

Joan aurretik
37 °C edo gehiago baditu, ez da ikuskizun-eremura joango, eta dagokion osasun-zentzora deituko du zer egin behar duen esan diezaioten.

Joan ondoren
Erabiltzaileak, ikuskizunarean ondorengo 15 egunetan sintomak baditu (batez ere, sukarra, eztula edo airerik ezaren sentrazioa) lehenik bere osasun-zentroari jakinarazi behar dio, eta gero Kutxa Kultur-i egoeraren berri eman. Bere osasun-zentroak ematen dizkion jarraibideak beteko ditu erabiltzaileak. COVID positiboren bat baieztatuz gero, jakinarazi Kutxari (covid@kutxa.eus) zein emanalditan izan zen zehaztuz eta sarrera erreserbatu zuen pertsonaren datuak emanaz. Bere etxean bakartuta geratu beharko du gutxienez bi astez edo erabat sendatu arte. Oso garrantzitsua da gorputzeko tenperatura hartzea, eta 37 °C baino txikiagoa izan behar du.

Ikuskizunak dirauen bitartean
Ikuskizunean bertan sintomak hautemanez gero, berehala jakinarazi Kutxa Kultur-eko arduradunari aurrez aipaturiko protokoloa aktibatzeko.

Garbiketa eta desinfektatzea

Garbiketa
Garbiketa-zerbitzuak lekuaren eta altzarien garbiketa egingo du ikuskizun bakoitzaren aurretik eta ondoren. Hala eta guztiz ere, kontu handiz ibiltzea gomendatzen dugu, garbiketa errazteko.

Aireztapena
garbiketa-zerbitzuak egunero aireztatuko du egonlekua garbitze-lanak egiten dituenean.

Norbera babesteko ekipamendua

Beharrezkoa izango da uneoro maskara erabiltzea.
Babes-bitartekoak behar bezala jartzeko eta kentzeko prozesua jarraitu; horri buruzko edozein zalantza kontsultatu eta kontserbazio-egoera on-onean daudela zaindu.

Gune komunak

Komunak
Komunean saihestu kontaktu estua.

Igogailuak
Jarraitu igogailuetan bertan azaltzen diren argibideak.

Espazioaren banaketa eta erabileraEdukiera orokorra

Espazioen edukiera indarrean dagoen araudiaren arabera izango da.

Lekuaren banaketa

Lekuaren banaketak arauzko distantziak betetzen ditu. Gainera, sartzeko eta itxaroteko eremuak egokituko dira, horiek ere arauzko distantziak betetzen dituztenak.

Mugimendua

Behin eseri eta gero, komunera joateko bakarrik mugitu ahal izango da.

Distantzia da prebentzio-neurririk onena. Leku mugarrizetan, hala nola korridoretan, leihatiletan edo sarreran, ez gurutzatu ibilbidean beste pertsona batekin. Geldituta zein martxan, osasun-agintariek ezarritako segurtasun-distantzia mantendu. Beharrezkoa bada, alde batera egin eta pasatzen utzi segurtasun-distantzia mantentzeko. Baldintza horiek guztiak bete arren, nahitaezkoa da beti maskara erabiltzea.

Higienea

Uneoro eskuetako higieena zaindu.

Erabili hainbat gunetan banatuta dagoen desinfektatzeko materiala.

Leku edo gunera sartu eta irtetea

Sarrerak formatu elektronikoan aurkeztu.

Zeure jarlekura joateko, itxaron langileek esan arte.

Ekitaldia amaitu ostean, itxaron jarlekuan langileek esan arte, irteera mailakatuta egiteko.